BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

1976

AGINDUA, 2012ko apirilaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko uztailaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko 2012an esleitutako kredituen guztizko zenbatekoaren berri ematen duena.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko uztailaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluaren xedea honako hau da: seme-alabak, edo mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak –besteren konturako langileak edo kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak– ordezteko langabe moduan inskribatuta dauden pertsonak kontratatzeko laguntzak arautzea.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko uztailaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 53.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, emango diren laguntzen bolumen osoak ez du gainditu Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan urte horretarako esleitutako diru-kopurua. Halaber, indarrean dagoen legediaren araberako aurrekontu-aldaketak onartzen badira, laguntzen bolumen osoak ezin izango du horrela eguneratutako kopurua gainditu. Era berean, artikulu horren 4. paragrafoari jarraikiz, publikotasun-printzipioa betetzearren, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, sailburuaren agindu bitartez, urtetik urtera emango du dekretu horretan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen guztizko zenbatekoaren berri, edo, hala badagokio, zenbateko hori eguneratzetik eratorriko den zenbatekoaren berri.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legea onartu denez, laguntza-ildo honetara bideratutako baliabide ekonomikoen zenbatekoaren berri eman behar da.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitako Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokio, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan enpleguaren, enplegurako prestakuntzaren eta autoenpleguaren eta enpresen sorkuntzen sustapenerako programak kudeatzeko eskumena, indarrean dagoen urriaren 13ko 3/2011 Legean ezarrita dagoenez. 2011ko urtarrilaren 1ean martxan jarri zenez geroztik, Lanbidek hartu du bere gain Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruko eginkizunak eta zerbitzuak kudeatzeko ardura, baita ordura arte Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak (bereziki, Enplegu eta Prestakuntzako Zuzendaritzak) egin izan zituen enpleguko politika aktiboen esparruko eginkizunak kudeatzekoa ere, eta eginkizun horietako bat da 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluan aurreikusitako laguntza-programa kudeatzea.

Laguntzak kudeatzen dituen organoa aldatu izanaren ondorioz, publikotasuneko eta segurtasun juridikoko printzipioak errespetatzearren, laguntzen hartzaile izan daitezkeenei informazio jakin batzuk ematea komeni da, diru-laguntzak izapidetzeko prozedurari dagokionez. Izan ere, prozedura hori ez dator bat 177/2010 Dekretuan aurreikusitakoarekin.

Hori dela-eta, 2012ko martxoaren 30eko bilkuran hartutako Erabakiari jarraikiz Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak proposatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko uztailaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. kapituluan aurreikusitako laguntza-ildoa finantzatzeko 2012ko aurrekontu arruntetik esleitutako kredituen guztizko zenbatekoaren berri ematea; 1.500.000 euro dira, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokion 41. sekzioko 3211 - Enplegua programaren kargura.

Hala badagokio, zenbateko hori egunera daiteke, baldin eta, indarreko legeria betez, aurrekontu-aldaketak onartzen badira. Aldaketa horiek gertatuz gero, gertaera hori argitara eman behar da Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez.

Bigarrena.– Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak laguntza izapidetzearekin loturiko honako alderdi hauei buruzko informazioa ematea:

– Agindu honi dagozkion diru-laguntzak lortzeko eskaerak aurkezteko, eredu ofiziala beteko da, http://www.lanbide.net webgunean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan (Atxotegi 1, Vitoria-Gasteiz. PK: 01009) eta Lanbideren Lurraldeko Enplegu Bulegoetan eskuragarri dagoena.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein baliabide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

– Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeko Zuzendaritzak bere gain hartuko du eskaerak kudeatu eta izapidetzeko ardura, eta erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiak izango du ebazteko eskumena.

– Zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa jartzeko aukera izango da organo horretan, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, agindua aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Bigarrena.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 18a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.